II. taldea

Egin dezagun azterketa konparatiboa. 1977. urtea Beasain, 2015. urtea Usurbil: norberaren informazioa eta ustea jarraituz, atera ditzagun pareko eta ez parekoak diren errealitateak.

BERDINTASUNAK

- Helburu ekonomikoa izan du beti.
- Aitzindari izan nahia. Ikastolak hasieratik izan dira aitzindari (pedagogia mailan apustua…), Kilometroak jaia bera…
- Zailtasunak zailtasun (lehen gurasoak militante, orain bezero), boluntario lana mantentzen da.
- Kanpotik begiratuta irudi osasuntsua ematen du Kilometroak-ek.

EZBERDINTASUNAK

- Lehenengo Kilometroak-etan, azpiegitura oso txikia (Ikastolan txosna bat…). Asko hazi da. Egun bateko jaia izatetik urte guztiko jaia izatera pasa da.
- Ikastola gehienak oso txikiak ziren lehengo garaietan.
- Ez zen ikastoletako ikasleen festa soilik, gazte guztiena baizik (euskaltzaleak). Beste eskoletakoek parte hartzen zuten… Herriaren onarpena. Gaur egun, jaira ikastolen komunitateko kideak joaten dira (ikasle, guraso, irakasle…).
- Hastapenetan herri mugimendu handia eta euskalgintza erdi klandestino zebilen. Eragile ezberdinen artean elkarrekintza handia zegoen.
- Hasierako Kilometroak espontaneoak eta parte-hartzaileagoak ziren (Kilometroak egitea helburu, sponsorrek ordainduta). Eredu zurrun samarra eta profesionalizatua bilakatu da, leku bakoitzera egokitzeko gerri gutxi daukana.
  - Espontaneitate galerak tentsioak ere badakartza ikastolara: hesiak direla, marken presentzia, kalitatea bermatu beharra…

- Komunikatiboki oso landua da gaur egun.
- Gazteak Kilometroak jaian: militantzia lehen vs. Kontsumismoa orain (Erronka goraipatzen da, nahiz eta ez izan argi zein dimentsio duen).
- Instituzioekin harremana: legeak bete beharra gaur egun, harreman estua, protokoloa… Hasiera batean euskaltzaleak norbanako gisa etortzen ziren.
- Sareen arteko lehia.
- Publifikazioak eragina izan zuen gizartearen pertzepzioan. "Ikastola ez da guztiena, euskaldun batzuena baizik". Herri mugimenduaren parte izatetik kanpo geratu.
- Mezu galera: "ikastolen festa" izatetik, jendarteak ez du argi zer den ("euskararen festa" …). Identitate falta dago.
- Gizartearen bilakaerarekin bat: aldarrikapen kutsu txikia du gaur egungo jaiak, festa soil bihurtzeko arriskuan. Borroka alboratuta. Hasieran guztia zegoen sortzeko, gaur egun, egon badago.
- Helburu ekonomikoaz gain, gaur egun irudi ere izan daiteke helburu nagusietako bat.
  - Helburu ekonomikorik ez badu, eredua aldatzeko aukera ezin da baztertu.
- Familien inplikazioa zeharo ezberdina da.

PROPOSAMENAK

- Gipuzkoako ikastolen jaia denez, ikastola guztiek hartu beharko lukete parte, baita urtean zehar ere.
- AEKA/KORRIKA: "pribatu" izan arren, zentralitatea eta onarpena dute euskalgintzan. Ikuspegi nazionala izateak lagundu? Ikastolek 5 jai izanda, ez dute ezaugarri hori.
- Mekanismoak sortu ediziotik ediziora egiten den lana aprobetxatzeko.

ONDORIOAK

- Ikastolak eta Kilometroak herri mugimendutik sortu ziren, mugimendu soziopolitiko handiko garai batean. Ikastolen mugimenduarekin eta Kilometroak-ekin identifikatzen zen sektorea oso zabala zen, lekua zegoen hainbat eragilerentzat. Ezberdinen batura. Publifikazioaren ostean, ordea, banaketa gertatzen da euskalgintzan. Guztien jaia izatetik, batzuen jaia izatera pasatzen da. Dagoeneko ez da hain zabala.
- Diskurtso edo mezu falta nabari da gaur egungo errealitateari erreparatuz gero. Kilometroak jaiarekin eta harekin zabaldu nahi ditugun baloreekin bat datorren diskurtso bat falta da. Horrekin batera egokitu beharko litzateke Kilometroak jaia.
- Kilometroak asko zurrundu eta profesionalizatu da azken hamarkadetan. Kalitatea bermatzen du horrek, baina espontaneitatea galtzea ere badakar. Horrekin batera, aitzindari izateko gaitasuna murrizten da.
- Beste eragile batzuekin parteka dezakegun diskurtso baten falta sumatzen da. Hasierako garaietan bezala, sektore zabalago batek partekatuko luke diskurtso hori. Hezkuntza sistema propioaren aldarrikapena izan daiteke diskurtso partekatu hori.